

LANBIDE HEZIKETA ARAUTEGIA

FALTAK

Modulu batean metatutako hutsegiteak, justifikatuta edo justifikatu gabe, ebaluazioak irauten duen bitartean moduluak guztira dituen orduen % 20ra iristen badira, ikasleak modulu horretarako etengabeko ebaluaziorako eskubidea galduko du.

EBALUAZIOA

- Irakasgai bakoitzak lau deialdi izango ditu gehienez. Praktikak bi deialdi izango ditu gehienez.
- 1º mailatik 2º era pasatzeko gehienez bi irakasgai utzi daitezke (beraien arteko orduen batuketa 300 baino gutxiago izanik)
- 2º mailan praktiketara joateko irakasgai guztiak gainditutak izan beharko diira, proiektua izan ezik.

PRESTAKUNTZA DUALAREN EREDU BERRIA

MAILA	DATAK – ORDUAK (608 osoa)	
1.	2026 Maiatza 13- ekaina 4	8or/egun-16 egun-128 ordu
2.	2026 otsaila 23- ekaina 3	8or/egun-60 egun-480 ordu

KONBALIDAZIOAK

- Zuzendaritzan aurkeztu behar izango dira eskaerak irailaren 30a baino lehen.
- Horretarako idazkaritzan dagoen inprimakia bete eta txertatu egin duzun moduloaren agirietara.

ERASMUS

Hautapen irizpideak:

- Espediente akademikoa
- Hizkuntzak. Maila, atzerrian egonaldiak...
- Falta eta atzerapen agiria
- Jarrera eta abilezi sozialak

- Currículum vitae

HEZIKETA DUALA

Hautapen irizpiseak:

- Espediente akademikoa
- Hizkuntzak. Maila, atzerrian egonaldiak...
- Falta eta atzerapen agiria
- Jarrera eta abilezi sozialak
- Currículum vitae

Empresak azken erabakia izango du.

IKASLEENTZAKO ARAU GARRANTZITSUAK

- Ikastetxeko **pertsona guztiei begirunea erakutsi** behar diezu. Erasoak, irainak eta nobatadak debekaturik daude.
- Gogoratu **materialak eta instalakuntzak** (mahaiak, aulkiak, hormak, arbelak, leihoak, ateak, komunak, lorategia, patioak, hesiak, gimnasioa, besteen gauzak, etab.) **behar bezala zaindu** behar direla. Gogoan izan txarto erabiltzeagatik materialean eragindako hondaketak, zein nahita sortutako kalteak, konpondu edo ordaindu egin beharko direla.
- Gogoratu **sarreretara garaiz heldu behar** duzula. Ate nagusiaren sarrera soinua entzun eta gero itxiko da eta kanpoan egon behar zara hurrengo ordua arte. Dena den, edozein arrazoiengatik berandu heltzen bazara, atezaintzatik pasatu behar izango duzu.
- **Klase orduetan** ezin da egon ez **harrera-gunean, ez pasabideetan, ezta komunetan ere**. Atsedendietan ezin da aparkalekuan egon, ezta Institutuko sarbide diren eskaileretan ere.
- Ondo dakizunez, **ezin da erre** institutuko eremu osoan.
- **Telefono mugikorrak eta musika entzuteko aparatuak debekatuta** daude eraikin barruan. Erabiltzekotan jasoak izango dira eta gurasoek etorri beharko dute berriz eskuratzeko (adin nagusikoa ez izatekotan).

EZAGUTU BEHAR DITUZUN BESTE ARGIBIDE BATZUK

- Eguneko sarrera eta irteera uneetan baita klase aldaketetan ere **seinale musikal bakar bat** entzungo duzula gogoratu.
- **Atsedendiaz** zera jakin behar duzu:
 - 10 min. baino ez dituzula komunera joateko eta ahalik eta lasterren patoria irten behar duzula.

- Atsedenaldia ikasten eman nahi baduzu joan liburutegira. Jakin ezazu, behin barruan egonda, ezin izango zarela irten seinale musikalak jo arte.
- **Zer egin klasera etortzerik ez baduzu?**
Klasera bueltatzen zaren egunean justifikapen orria behar bezala bete eta euren klaseetara joaterik izan ez duzun irakasleei erakutsi. Irakasle guztiek sinatu ondoren tutoreari eman.
- **Eta azterketa galdu badut?**
Azterketa hori berriz egin diezazuten, zure etxetik Institutura deitu behar izan dute azterketaren egunean, tutoreari edo dagokion irakasleari azterketara ez etortzearen zergatia azalduz.
Justifikapen orria betetzeaz gain, medikuak edo kasuan kasuko erakundeak emango dizun justifikapen ofiziala erantsi beharko duzu.
- **Jokabide desegokiak, bizikidetzako aurkakoak eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideen ondorioak:**
Badakizunez, jokabide desegokiak, bizikidetzako aurkakoak eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak edukitzeak hurrengo ondorioak dauzka:
- **Jokabide desegokiaren ondorioak:**
Derrigorrez eta biharamunean ohartarazi zaituen irakasleari ekarri beharko diozu.
Zeregin akademikoren bat egitea, atsedenaldirik gabe geratzea edo, Zuzendaritzatik pasaraztea ere egin ahal izango duzu.
- **Bizikidetzako aurkako jokabideen ondorioak:**
Bizikidetzaren kontrako jokabideagatik prozedura zuzentzailea hasi izana jakinaraztea eramango duzu etxera eta gurasoek etorri beharko dute hitz egitera.
Zure jokabidea zuzentzeko neurriren bat egin beharko duzu, esaterako: ikasgelaz aldi baterako aldatzea, ikasgelatik aldi baterako ateratzea, lan hezitzaileak egitea, eskoletara joateko eskubidea edo jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko eskubidea etetea, etab.
- **Bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideen ondorioak:**
Aurreko kasuaren prozeduraren antzekoa da baina bete behar izango duzun neurri zuzentzaileak gogorragoak izango dira, ikastetxearen lekualdatzea, zenbait kasutan, aintzakotzat hartuz.
- **Jokabide desegokiagatik gelatik alde baterako kanporaketaren ondorioak:**
Kasu honetan Hausnarketa Gelara zuzendu beharko duzu kanporatu zaituen irakasleak emango dizun lana betetzera.